

Gure negozio-ereduak funtziona dezan, aurrenik, produktua egin behar dugu. Aurretik aipatutako xehetasunak dituen produktu errealak aurkeztuko dugu. Agian, 2-3 prototipo izango dira. Bigarrenik, baliabide intelektualak (enpresaren garapenerako baliatzen diren aktibo ukiezinak) erabiliz, proiektuaren aurkezpen bat emango dugu, bai erabiliko diren material zein diseinu erakutsiz. Ondoren, giza-baliabide batzuk erabili beharko ditugu, proiektu hau aurrera eramane izateko. Gutxi gorabehera, 8 langile gehiago beharko ditugu, gu lauok gehitu gabe. Azkenik, prezioaren aldetik, kopuru zehatz bat ez dugu, baina estimatu dezakegu 80€ baino gutxiago balioko duela. Gogoan izan behar da inbertsio bat dela eta ez gastu bat.